

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Zuzeneko Enplegu Aktiboa programa 220.000 euro baino gehiagorekin zabaldu da eskaera guztiei erantzuteko

Guztira, Nafarroako Gobernuak 2,69 milioi diru-laguntza eman du gizarteratzeko errentaren 593 hartzaille kontratatzeko

Jueves, 05 de noviembre de 2015

Nafarroako Gobernuak [Zuzeneko Enplegu Aktiboa](#) programaren aurrekontuan beste 225.658,50 jarriko ditu toki, merkataritza eta irabazi-asmorik gabeko erakundeek aurkeztutako diru-laguntzen eskaera guztiei aurre egiteko, eta gizarteratzeko errentaren hartzailleak kontratatu dituztenak.

Guztira, Nafarroako Gobernuak 2015. urtean 2,69 milioi euro erabili ditu programa horretarako, eta gizarteratzeko errentaren onuradun edo aurreko urtean agortu zuten langabeen 593 kontratu finantzatu dituzte.

Aipatutako aurrekontuaren zabaltzeari esker, Eskubide Sozialetako lehendakariorde Migel Laparraren foru-agindu bidez modu berezian baimendua, 52 kontratu berri diruz lagunduko ahalko dira; haietatik, 45 kontratu toki edo irabazi-asmorik gabeko erakundeek izenpetu dituzte, eta beste zazpi, enpresek.

Nafarroako Gobernuak, horrenbestez, aurkeztutako diru-laguntzen eskaera guztiei aurre egin ahalko die eta ezin izan zirenak erantzun hasieran aurreikusitako partida agortzeagatik; 2,46 milioi euro, guztira.